

4. Gobernu korporatiboa

Gobernu-organoak

EITBk gobernu korporatiboko bi organo ditu:

- **Administrazio Kontseilua:** EITBren Administrazio Kontseilua, XII. legegintzaldiari dagokiona, Eusko Legebiltzarrak izendatu zuen 2020ko azaroaren 19an, EITB sortzeko 5/1982 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hogei kide ditu, eta Zuzendari Nagusiak bertan parte hartzen du. Kontseiluaren % 35 emakumeek osatzen dute.
- **Zuzendaritza Nagusia:** administratzaile bakar batek osatzen du -EITBko zuzendari nagusiak-, eta bera da erabaki-organo gorena ingurumen gaitetan, arlo sozialean eta gobernu korporatiboan.

